

Gmail

Google Ireland Limited ("Google")

Gordon House, Barrow Street, Dublin 4, Irlanda
<https://support.google.com/>

2020ko abenduaren 21ean jarriko da indarrean

Kontratuaren laburpena

- Kontratuaren laburpenak gure zerbitzu-eskaintzaren gako nagusiak azaltzen ditu, Europar Batasuneko legediari jarraikiz¹.
- Zerbitzu-eskaintzak alderatzen laguntzea da helburua.
- Zerbitzu-eskaintzari buruzko informazio guztia beste dokumentu batzuetan aurkituko duzu.

Zerbitzuak

Hainbat gailu eta plataformatarako posta elektronikoko zerbitzua da Gmail, eta web-interfaze edo aplikazio baten bidez eskaintzen da. Gmail bidez mezuak bidali edo jasotzeko, beharrezkoa da Internetera konektatuta egotea. Gmail zentzuz eta kontu handiz eskaintzen du Google-k, baina ez du ematen gutxieneko kalitate-mailarik.

Prezioa

Gmail doan eskaintzen da, eta, hura erabiltzeko, beharrezkoa da Google-ren Zerbitzu-baldintzak gordetzea (<https://policies.google.com/terms?hl=eu>).

Iraupena, berritzea eta deuseztatzea

Gmail berehala erabil dezakezu erregistratu ostean. Ez duzu Gmail epe finko batez erabili behar eta nahi duzunean utz diezaiokezu hura erabiltzeari.

Desgaitasunen bat duten erabiltzaileentzako eginbideak

Pantaila-irakurgailua eta lasterbideak erabilia eta kontraste handiko gai bat ezarrita erabil dezakezu Gmail. Xehetasun gehiago lortzeko, joan hona: <https://www.google.com/accessibility/>.

Bestelako informazio garrantzitsua

Bezeroarentzako laguntza-zerbitzua: Gmail-ekin laguntza behar baduzu, joan hona: <https://support.google.com/>.

Auziak: Baliteke <https://ec.europa.eu/consumers/odr/main/?event=main.adr.show2> zerrendan agertzen diren hornitzaileetako batera jo ahal izatea auziak ebazteko, edo beste batera, zure herrialdeko legediari jarraikiz. Xehetasun gehiago lortzeko, ikusi Google-ren Zerbitzu-baldintzak.

Segurtasun-gertakariak: Google-k arazoak kudeatzeko programa zorrotz bat darabil etengabe, segurtasunari edo pribatutasunari buruzko arazoak berehala identifikatzeko eta haiei erantzuteko. Horrez gain, Google-k segurtasunerako egiaztapen-zerrenda bat du, sareko segurtasuna errazago kudea dezazun.

Datu pertsonalak: Gmail-en erregistratu ahal izateko, zure izena eta ezizen bat jakinarazi beharko dituzu kontua sortzeko. Google-ren Pribatutasun-gidalerroek (<https://policies.google.com/privacy?hl=eu>) informazio gehiago eskaintzen dute Gmail erabiltzean Google-k biltzen dituen datu pertsonalei buruz. Google-ren Pribatutasun-gidalerroak ez dira zu eta Google-ren arteko kontratuaren edo laburpen honen parte.

¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1972 Zuzentarauaren 102(3). artikulua, 2018ko abenduaren 11koa, Komunikazio Elektronikoen Europako Kodea ezartzen duena (EO L 321, 2018/12/17, 36. or.).